

2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA
Programa: 63 NATURAREN ETA NATURA
GUNEEN KONTSERBAZIOA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE
Programa: 63 CONSERVACIÓN DE LA
NATURALEZA Y ESPACIOS
NATURALES

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak, biodibertsitatea zaintzeko zeregina duenez, arreta berezia jartzen die espeziei, eta, bereziki, arriskuan daudenei. Horrez gain, zerbitzu hau arduratzen da Natura 2000 Sareko babestutako biotopoak eta babes bereziko alderdiak kudeatzeaz, eta habitat naturalak zaintzeaz, egokitzeaz eta birgaitzeaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Baterako Instituzioek beren gain hartutako eskumenen ondorioz.

Mehatxatutako espezieak, espezie zaugarri edo arriskuan daudenak zaintzeko jarduera eta kudeatze planak abian jartzea eta horien jarraipena egitea Arabako Foru Aldundiaren eskumenen artean sartzen dira. Plan horien helburuen barnean kalte fisikoren bat pairatu duten faunako animaliak berriro naturan sartzera ere badago, Martiodako Fauna Basatiaren Susperteggiaren bitartez.

Zerbitzu honek betetzen duen beste zeregin bat da gure natur ondareko landaretza eta faunaren aberastasuna zabaltzea, hitzaldi, argitalpen, ibilaldi eta bisita gidatuen bitartez.

Europar Batasunak hegaztiei, habitatei eta Natura 2000 Sareari buruz ezarritako jarraibideen aplikazioak Ingurumen Zuzendaritzaren menpeko zerbitzuetan gauzatzen dira.

Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak ingurumen arloan duen beste zeregin batzuk dira hiri inguruneko sailkatutako jarduerak eta indarrean dagoen legeriaren arabera ingurumenean eragina duten jarduerak kontrolatzeko tresnak martxan jartzea.

Zerbitzuaren jarduera-esparruak beste diziplina bat ere hartzen du barnean: plan, programa eta proiektuen ingurumenaren gaineko eragina ebaluatu eta

I. MEMORIA

El Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad procura, en su faceta de conservación de la biodiversidad, la atención a las especies, preferentemente a las amenazadas, la gestión de los Biotopos Protegidos y Zonas de Especial Conservación de la Red Natura 2000, así como al cuidado, acondicionamiento y restauración de los hábitats naturales, como función derivada de las atribuciones asumidas por las Instituciones Comunes del País Vasco.

La puesta en marcha y seguimiento de planes de actuación y gestión de especies amenazadas, vulnerables o en peligro de extinción forma parte de los cometidos que realiza la Diputación Foral de Alava, atendiendo también al restablecimiento y reintroducción en la Naturaleza de los componentes de la fauna que han sufrido percance físico, a través del Centro de Recuperación de la Fauna Silvestre de Mártioda.

La divulgación de la riqueza florística y faunística de nuestro patrimonio natural es una importante labor difusora realizada por el mismo Servicio, por medio de conferencias, publicaciones, itinerarios y recorridos guiados.

La aplicación de las Directivas de la UE, de Aves, Hábitats y Red Natura 2000 inciden en las actuaciones de los Servicios dependientes de la Dirección de Medio Ambiente.

Otros cometidos de índole medioambiental del Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad consisten en la puesta en marcha de los instrumentos de control de actividades clasificadas dentro del medio urbano y de las que afecten al medio ambiente según la regulación normativa vigente.

La Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, otra de las disciplinas que abarca el ámbito de actuación del Servicio, se

2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA
Programa: 63 NATURAREN ETA NATURA
GUNEEN KONTSERBAZIOA

zuzentzea. Hori garrantzi handiko bitartekoa da gure lurraldeko ingurumenaren balio eta baliabideak antolatu eta babesteko.

Antzinako meatze guneak eta leku hondatuak lehengoratzearen helburua da ingurumen aldetik andeatuta dauden lekuak edo hobetu daitezkeenak ekologiaren nahiz paisaiaren aldetik biziberritzeko jarduerak egitea. Meataritzako ustialeku zaharren betetze sekuentzialerako programak aipatu behar dira, esaterako Langraiz Okako "El Torco" harrobian egindakoa eta Laudioko Bitorika harrobikoa, eta beste alde batetik Lurraldeko kontrolik gabeko hondakindegia zigilatze eta lehengoratzeko egindako lanak.

Uribarri Ganboako urtegiaren ertzen moldatze ekologikoa ere nabarmentzekoa da. Izan ere, habitata babestu, lehengoratu eta hobetzeko jarduerak egin dira, eta perimetroko Ibilbide Berdea egokitu eta hobetzeko ekintzak gauzatu dira. Horri guztiari esker, ur plano horren balioa areagotu egingo da. Gainera, gune hori Zadorraren natura, ingurumen eta paisaia orekarako giltza da.

Hezeguneetan ingurumena lehengoratzeko beste jarduera batzuk egin dira Guardiako Aintziren Biotopo Babestuan. Han, ingurumena zuzendu eta birsortzeko ekintzak egin dira Muscoko aintziran. Era berean, eremu honetako ekologia eta paisaia hobetu eta egokitzeko etorkizuneko ekintzak bideratuko dituen perspektiba integral batean kokatuta, Ingurumenaren Antolamendurako eta Esku Hartzerako Plana egin da. Plan horrek gidatuko ditu eremu berezi horretan garatu beharreko hurrengo ekintzak.

Aisialdirako eremu publikoak egokituz Arabako ingurumenaren baliabidez gozatzea bultzatzen da, batez ere paisaiak dituen horietaz. Parke probintzialak eta Korridore Berdeen Sarea gero eta gehiago erabiltzeak erakusten du programak zer-nolako arreta jartzen dien. Ildo horren barruan, Vasco-Navarro trenaren antzinako trazatuan ekologia eta jolas xedeekin eginiko egokitze jarduerak nabarmendu behar dira. Horrela, ibilbideko tarte berriak gaitu dira, eta zoruak hobetu eta sendotzeko hainbat lan egin dira zerbitzuan dauden tarteetan. Ibilbideari lotutako

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE
Programa: 63 CONSERVACIÓN DE LA
NATURALEZA Y ESPACIOS
NATURALES

configura como una herramienta de gran importancia en la ordenación y protección de los valores y recursos ambientales de nuestro territorio.

La restauración de antiguos espacios mineros y áreas degradadas tiene como objetivo la realización de actuaciones encaminadas a la recuperación ecológica y paisajística en áreas degradadas medioambientalmente, o susceptibles de mejora. Destacan los programas de relleno secuencial en antiguas explotaciones mineras, como el desarrollado en la antigua cantera de "El Torco", en Nanclares de la Oca y en la cantera de Bitorika en Llodio, así como las actuaciones llevadas a cabo para sellado y rehabilitación ambiental en escombreras y zonas de vertido incontrolado de la provincia.

La adecuación ecológica de los márgenes del Embalse de Ullibarri Gamboa, con la ejecución de actuaciones para la protección, restauración y mejora del hábitat, y la continuación de acciones para el acondicionamiento y mejora de la Ruta Verde perimetral son obras destacadas en la puesta en valor de ese plano de agua, pieza esencial en el equilibrio natural, ambiental y paisajístico del sistema fluvial del Zadorra.

Otras actuaciones de restauración ambiental en humedales han sido llevadas a cabo en el Biotopo Protegido de las Lagunas de Laguardia, en donde se han realizado actuaciones de corrección y regeneración ambiental en la Laguna del Musco. Asimismo y enmarcado en una perspectiva integral que oriente futuras actuaciones la mejora y acondicionamiento ecológico-paisajístico de este espacio, se ha elaborado un Plan de Ordenación e Intervención Ambiental que guíe las próximas acciones a desarrollar en este singular enclave.

El acondicionamiento de espacios públicos para el uso recreativo potencia el disfrute de los recursos ambientales, particularmente paisajísticos, de Alava. La utilización creciente de los Parques Provinciales y de la Red de Pasillos Verdes es reflejo de la atención que a los mismos se presta en el Programa. Dentro de esa línea cabe destacar las actuaciones llevadas a cabo para acondicionamiento con fines ecorrecreativos del antiguo trazado del Ferrocarril Vasco-Navarro, en donde se ha trabajado en la habilitación de nuevos tramos de su recorrido y se han llevado a cabo

2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA
Programa: 63 NATURAREN ETA NATURA
GUNEEN KONTSERBAZIOA

ondare naturala eta historiko-kulturala zabaltzea eta balioa ematea landutako beste alderdi bat izan da, haren interpretazio baliabideak ustiatuz. GR-1 bidezidor historikoa landutako beste ibilbide natural bat izan da. Izan ere, ibilbidea lehengoratzeko eta seinaleztapena sendotzeko hainbat jarduera egin dira zenbait tartetan, Arabako Lurralde Historikoan.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

Ondoren programaren helburu bakoitzari esleitu zitzaion zenbakiaren arabera azalduko dugu helburu horren gauzatze maila.

1. Espezie biodibertsitatearen baliabideak mantentzea eta babestea.

2007. urtean abiarazitako zuhaitz zaharren habitatei buruzko lan ildoetatik aurrera jarraitu dugu: hainbat lan egin dira Okariz eta Munain mendietan eta hezeguneen eta ibai korridoreen biodibertsitateari buruzko azterlana egin da.

40 txosten idatzi dira espezieak kudeatzeko planei buruz eta lurralde plangintzako jardueri buruz, horiek guztiak intereseko lekuetan eta espezieen habitatean zuten eragina aztertze aldera.

Martiodako Fauna Basatiaren Suspertegiko instalazio berrituetan, 2008. urtean, 532 fauna espezie sartu dira eta zaintza lanak egin dira haiekin.

2. Fauna eta florako espezieen eta sistema naturalen azterlana, ezagutza eta zabaltzea.

Hainbat azterlan egin dira mehatxatutako animalia eta landare espezieen inbentarioak egiteko eta haien kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko. Ildo honetan, harraparien komunitateen inbentarioak prestatzeko Lurraldeko hainbat aldetan egindako lanak aipatu behar dira, eta horiez gainera hegazti fringilidoen, anfibioen eta horien ugalketa eremuen, mirotzen eta sai arreen populazioei buruzko azterlanak eta Bonelli arranoa eta ur

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE
Programa: 63 CONSERVACIÓN DE LA
NATURALEZA Y ESPACIOS
NATURALES

diversos trabajos de mejora y refuerzo de firmes en los tramos ya puestos en servicio. La divulgación y puesta en valor del Patrimonio Natural e Histórico-Cultural ligado a la Ruta ha sido otra de las facetas atendidas, a través de la explotación de sus recursos interpretativos. El Sendero Histórico GR-1 ha sido otro de los itinerarios naturales objeto de atención en donde se han llevado a cabo diversas actuaciones para la restauración del itinerario y refuerzo de la señalización en diversos tramos de su recorrido en el Territorio Histórico de Álava.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

A continuación exponemos el correspondiente grado de cumplimiento en función del número que se le asignó a cada objetivo del Programa.

1. Mantenimiento y protección de los recursos de la biodiversidad de las especies.

Se ha continuado desarrollando las líneas de trabajo emprendidas en 2007 sobre los hábitats singulares de los Arboles Viejos con diversos trabajos en los montes de Okariz y Munain y varios estudios sobre la biodiversidad de Humedales y Corredores Fluviales

Se redactaron 40 informes sobre planes de gestión de especies y actuaciones de planificación territorial en relación con su afección al hábitat de las especies y lugares de interés.

En las renovadas instalaciones del Centro de Recuperación de Fauna Silvestre de Martioda, se han producido 532 ingresos de especies faunísticas que han sido atendidos a lo largo de 2008.

2. Estudio, conocimiento y divulgación de las especies de fauna y flora y los sistemas naturales.

Se han llevado a cabo diversos estudios para inventariación y seguimiento del estado de conservación de las especies de fauna y flora amenazadas. Destacar a este respecto los trabajos de inventariación de las comunidades de rapaces realizadas en diversas áreas de nuestro territorio, los estudios de las poblaciones de Aves Fringilidas, Anfibios y sus áreas reproductivas, Aguiluchos y Buitre Leonado, y las actuaciones de

2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA
Programa: 63 NATURAREN ETA NATURA
GUNEEN KONTSERBAZIOA

ipurtatsa kontrolatzeko eta jarraipena egiteko lanak (onartutako kudeaketa planei lotuta). Guztira 10 landare eta 150 animalia espezie aztertu, inbentariatu eta kontrolatu eta jarraitu dira, haien habitaten eta populazioen berri jakiteko.

15 jarduketa egin dira Arabako oparotasun biologikoaren berri zabaltzeko: panel informatiboak hainbat tokitan eta era askotako material informatiboa sortu (agerkari bereziak, txartelak, koadernoak, posterrak, etab). Nabarmendu behar dira, baita ere, Arabako fauna ornodunari buruzko ingurumen informaziorako sistema sortzeko egintza lanak.

3. Ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzea eta babestea.

Arabako 25 herritan lortu da isurguneak kentzea, kontrolatu gabeko zaborteak ixtea eta ingurune horietan ekologia eta paisaia lehengoratzeko. Trebiñuko 2 udalerrietan ere egin da lan hori, hitzarmenari jarraiki. Lehengoratutako azalera, guztira, 315.000 m² izan da.

Langraiz Okako "El Torco" harrobi zaharra ingurumen eta paisaiaren aldetik lehengoratzeko lanek (betetze sekuentziala) martxa onean egin dute aurrera 2008an. Antzeko lanak egin dira Laudioko Bitorika harrobi zaharrean ere, alde narriatu horretarako prestatutako lehengoratzeko programaren barruan.

Habitat naturalak hobetzeko eta horien ekologia eta paisaia lehengoratzeko egiteko jarduerak lurraldeko hezeguneetan egin dira batez ere. Hainbat ekintza eta lan egin dira Urizarri Ganboako urtegiko hezegunean eta Guardiako aintziretan.

Ingurumena babestu eta zabaltzeko jardueretan, hainbat artatze egin dira. Hauek nabarmendu behar dira: urtegiko muturretako Ramsar hezegunean (Mendixur) eta Guardiako aintziren biotopo babestuan egintza lanak.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE
Programa: 63 CONSERVACIÓN DE LA
NATURALEZA Y ESPACIOS
NATURALES

seguimiento y control de las especies de Aguila Perdiz y Visón Europeo en el marco de los Planes de Gestión aprobados para dichas especies. Un total de 10 especies de flora y 150 de fauna fueron objeto de estudios, inventarios, y acciones diversas para control y seguimiento de sus hábitats y estado de sus poblaciones.

Hubo 15 actuaciones de divulgación de la riqueza biológica alavesa, incluyendo paneles informativos en diversos lugares y la confección y edición de material informativo diverso (publicaciones específicas, tarjetas, cuadernos, posters, etc). Destacar también los trabajos realizados para la creación de un Sistema de Información Ambiental sobre la Fauna Vertebrada en Álava.

3. Mejora y protección de la calidad ambiental y del paisaje.

La eliminación de focos de vertido, sellado de vertederos incontrolados y restauración ecológico-paisajística de los mismos se ha logrado en 25 localidades de Álava, actividad que, en virtud de Convenio, ha continuado con los 2 municipios del condado de Treviño. La superficie total restaurada es de 315.000 m²

Los trabajos de relleno secuencial para restauración ambiental y paisajística de la antigua cantera de "El Torco" en Nanclares de la Oca continuaron a buen ritmo este año de 2008. Se han desarrollado asimismo actuaciones similares en la antigua cantera de Bitorika en Llodio dentro del programa de regeneración ambiental previsto para este espacio degradado.

Las actuaciones de restauración ecológico-paisajística y mejora de los hábitats naturales han tenido como escenario preferente los Humedales del Territorio, desarrollándose diversas acciones y trabajos en el Humedal del Embalse de Ullibarri-Gamboa y Lagunas de Laguardia.

Las actividades de divulgación y protección medioambiental han implicado múltiples atenciones, destacando las desarrolladas en el Humedal Ramsar de las colas del Embalse a la altura de Mendixur y en el Biotopo Protegido de

2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA
Programa: 63 NATURAREN ETA NATURA
GUNEEN KONTSERBAZIOA

Planen, programen eta proiektuen ingurumen inpaktua ebaluatzeari eta zuzentzeari dagokionez, guztira, 180 txosten egin dira 2008. urtean.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE
Programa: 63 CONSERVACIÓN DE LA
NATURALEZA Y ESPACIOS
NATURALES

las Lagunas de Laguardia.

En materia de Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, se han emitido a lo largo del año 2008 un total de 180 informes.